Artzape

getariarron topagunea

2020ko otsaila

200. zbk

HERRIAREN KONTAKETA 200 ATALETAN ARRANTZA, TRADIZIOTIK GARAPENERA

Astillero
ANTONIA IRIBAR
Erretegia
Parrillan espezialitatea
Kaia, 1
20808 GETARIA
Tel.: 943 14 04 12

barne diseinua interiorismo
Garbiñe Ibarbia Gamboa
Colegiado Nº 5158/158
- Proiektuak eta erreformak
- Obra-zuzendaria
- Obra-eta jarduera-baimenak
- Gremio koordinaketa
Kristobal Balentziaga, 7 - Getaria - Tel. 685 75 18 21 garbi.ibarbia@hotmail.es

Katrapona 4
Tel. 943 140 409
info@katrapona.com
www.katrapona.com
KATRAPONA

GIROA TABERNA
·Plater konbinatuak
·Bokatak
·Pintxo goxoen aukera
Kale Nagusia, 24 - GETARIA - Tel.:943 140 800

portu
nagusia 12
20808 getaria
943140285

MAISOR
Kantauriko esperientzia
OBRADOREA eta DENDA
Tel. +34 943 140 993
www.maisor.com
GETARIA
ANTXOA | ANTXOA OZPINETAN | HEGALUZEA | BERDELA | MENTREZKA | SARDINTXOAK

PINTXO GOXOAK
ITSASKIAK DASTATZEKO EDO ERAMATEKO
GETAKA
GETARIAKO PRODUITS EXPRESSION
KALE NAGUSIA 35. GETARIA - TEL.: 943 02 16 13
WWW.GETARIAEXPERIENCE.COM
WWW.GETAKA.ES

K
KAIA KAIPE
JATETXEA RESTAURANTE
Arnao generala, 4 20808 Getaria // 943 14 05 00 // www.kaia-kaipe.com

Eugenio Uranga
Aseguru Artekaria
Herrerieta, 12
20808 GETARIA
Tel.: 943 140 120
Mobila: 652 775 061
E-posta: euranga@getaia.com

SALANORT
MAESTROS CONSERVEROS
KALE NAGUSIA 22
GETARIA
943 14 06 24
tienda.getaria@salanort.com
Síguenos en FACEBOOK
www.salanort.com

6-7 Getariatik... Tuterara

9-10 Erreportajea: garai bateko bisigu arrantza

4	Salberak Itsaskabrari
5	Iritzia: Nerea Kamio
6-7	Getariatik...
8-9	Argazki erreportajea
10	Artzapek 200 ale
12-13	Erreportajea: garai bateko bisigu arrantza
14-17	Elkarrizketa: Ibai Aranguren arrantzale gaztea
18-19	Erreportajea: Herrerieta kaleko obrak
20	Elan Euskadi
21	UrpekHARIAK
22	Harritarten txutxupeka
23	Urritza Aisialdi Taldea eta Getariako hitza
24	Komikia
25	Txikiegia agian eta Kritika
26	Agenda

2020ko otsaila 200. zbk

Artzape
getariarron topagunea

[Argitaratzailea] Artzape Euskara Elkartea
[Egoitza] Krixketaneko Iturrigaina 1 - Eskualtxeta Kulturgunea
[Kontaktua] 943 000 548 / artzape@topagunea.com
[Erredakzioa] Iure Eizagirre eta Intza Gurrutxaga.
[Lan taldea] Aritz Iribar, Eider Iribar, Izaro Uzin, Jon Ander de la Hoz, Josune Urresti, Nerea Kamio eta Joseba Fuentes.
[Kolaboratzaileak] Aitor Irigoien, Amaia Irazabal, Andres Alberdi, Beñat Gereka, Edurne Irigoien, Elan Euskadi GKE, Ereiten Kultur Zerbitzuak, Garbiñe Ibarbia, Getariako Eskubide Sozialen Karta, Getariako Udal Liburutegia, Goiatz Lazkano, Iturzaeta Herri Eskola, Jon Ander de la Hoz, Joxi Erauskin, Kepa Iribar, Markos Aizpuru, Mikel Mugika, Saioa Martinez de Lahidalga, Urritza Aisialdi Taldea, Uxoa Irigoien, Xabi Insausti eta Zigor Saizar.
[Diseinua] Aritz Paredes eta Xabier Isasti.
[Inprimategia] Gertu (Oñati)
[Tirada] 365 ale
[Lege gordailua] SS-504/01
[ISSN] 1578-469X

ARTZAPE ALDIZKARIAk ez ditu bere gain hartzen aldizkarian argitaratzen diren iritziak.

GETARIAKO UDALAK eta GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAk diruz lagundutako aldizkaria.

Getariako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

JON ANDER DE LA HOZ

Egoak minduta

Alferrikako gerratan sartzea ez zaidak gustatzen, Zigor. Aspaldi entzun nian norbaitekin zer aldaturik ez dagoenean, hobe dela bere horretan uztea eta kasurik ez egitea, hire osasunerako kaltegarria izateaz gain, aurrekoa hauspotu besterik ez dualako egiten.

Hormarik gogorrenaren adinako fatxada dutenez ari nauk; dena duda garenon antipoda fisikoez, bere izaera seguruaz oso seguru daudenez... inork haiek zalantzan jarri arte. Fatxada besterik ez denaren susmoa hartu ziet.

Niretik bizi nian asko ez dela. Orain egun batzuk, ur botila eskatu nian herriko taberna batean. Nire adin inguruko batek, atzetik purrustada: "Zerbeza ez den zerbait edaten? Gaixorik?". Bakarrik dagoenean munduko jatorren eta lagunartean bi metrotik gora hazten den horietako pertsona.

Esandakoak baino, asmoak egin zidakean min. Ingurukoen aurrean izar papera egin nahi zian nire bizkarrera. Halere, otzan erantzuten saiatu ninduan: "Barkatu, baina jakingo duzu ba, nik egunean bi litro ur edaten ditudala, ordu jakin batzuetan soilik edaten dudala zerbeza, eta tabernan edanez ikusten banauzu, etxean tantarik edaten ez dudalako dela? Hain justu, horretarako nator tabernara!".

Bere erantzuna, sututa: "Aizu... baleeee eh!!! Nik ez dizut txarrerako esan eta. Ez dago horrela jarri beharrik". Inguruko denak, isilik. Ordutik gaurdaino, kasurik ere ez kalean. Noski, jendearen aurrean ebidentzian geratzeak min egin zioan. Geu txarrak, *gainetikan*!

Egun batzuetara, Gabonen inguruan, bi tipo liskarrean; bat hasi zela, bestea zela... Distantziatik, ohartu ninduan kontua ez zela batak edo besteak zuen arrazoia, ingurukoen aurrean oilarrena izatea zela garrantzia zuen bakarra.

Eta ohartu ninduan mutur joka hasteko, besteari etiketak jartzeko, hurkoari min egiteko... prest gaudela, norbere barneko arrakalak agerian uzten ez baditu. Hori bai tristea, eta inor ez zegok hortatik salbu, ezta lerrook idazten dituen hau ere.

ZIGOR SAIZAR

Egiak aldabetan

Hire gogoeta irakurrita gure barrura zein gutxi begiratzen garen konturatu nauk, adiskide. Fatxada eta harresi handienak ere nola bihurtzen diren paperezko ispiluaren aurrean jartzen garenean... edo norbaitek, ispiluarena eginez, nolakoak garen erakusten digunean.

Burutazio horri tiraka, gure erraietara begiratzeko ausardiarik ez badiagu, nola demontre ikusiko diagu gure aurrean dagoen pertsona? Gure aurrean duguna benetan nolakoa den, zer pentsatu eta sentitzen duen antzematea utopia hutsa dek. Horregatik geratzen gaituk azalean: etiketetan, *gaixkiesaka*...

Zenbat aldiz ikusi ote diagu norbera handitzeko, puzteko, hazteko, bere aurrean dagoena txikitzen, "publikoa" behar duten aktore txarrak, ahotsa altxatuz eta bestea barregarri utziz? Norberaren miseriak tapatzen dituen ahoberoa...

Baina Zumaiko errebuelta beti etortzen dek, Jonan, eta bizitzaren edozein momentutan egingo diagu pertsona horrekin topo, bakarka, aurrez aurre... Orduan biluzik aurkituko dek, ustela azalduko zaik, ahotsaren tonua leunduko dik, hitz totelka hasiko dek, negarra ez dik urruti izango. Hik, ordea, otzan erantzun hioan bezala, ez diok hitzik esango, eskua bere sorbaldara eraman eta estutu egingo diok. Aski dik.

Gure herri txikian, kaleak estuak dituk, auzoaren atariak bata bestearen alboan zeudek, aldabaren tan-tanak errez iristen dituk gure belarrietara, errezegi aukeran. Nagok gure bihotzak egiten dituen tan-tanak entzutea, ordea, zaila egiten zaigula, ziurrenik gure barruko aldaben danbadek bihotza kraskatuko gaituen beldur.

NEREA KAMIO

Paseo del Alcalde

Goizeko 07:00ak. Iratzargailuak jo du, egunak argitu du eta laneguna da. Aurrenengo gauza mugikorra begiratzea eta hortxe Whatsappeko taldeko goiztiarrenen mezuak: "Kamiyua itxita dao". Berriz? Akabo. Hau da hau asteartea hasteko modua.

Zautza edo Zumaira? Mendia edo itsasoa? Zer izango ote dugu oraingoan? Eta garrantzitsuena: zenbat denborarako? Nik kotxea hartzerako irekiko ote dute? Zarautz aldera da eta goizeko 6etan harri handi bat erori da, antza. Segidan beste lagun baten mezua. Hau 07:30eko tandakoa: "Ni oaintxe goitik jun nai". Bale, itxita jarraitzen du. Ordu erdi ni ateratzerako. Ea ba.

Mia bideko kotxe, autobus eta kamioi festaz akordatze hutsarekin kafea kontrako eztarritik pasa zait. Eta ziur Lurraldebuseko telefonoa atenditzen duen neskari ere baietz. Ez ordutegirik Twitterren, ez kartelik eta ez lantzaderarik geltokian. Bat eta besteren marmarrak besterik ez: ordu erdi doala zain, txoferrek ez dakitela ezer, Zumaiara doazenak ea zer... Kaosa eta haserrea. Betiko anabasa, alegia. Berriak ematen dugu.

Egoera ikusita eta amorratuta, kotxea hartzea izango dela onena eta hantxe, logureak eta nagiak kolpera baztertuta, mahasti artean *Gategañ*araka. Parean kamioirik eta/edo autobusik ez tokatzea kasik errezatzen. Bai, bai, errezatzen. Ondo egin zuten lana Umien larunbateko mezatakoek. *Nik badut lagun bat* erraietaraino sartu ziguten eta egoerarik muturrekoenetan ateratzen da.

Santa Barbarako bidegurutzera iritsi, kurba itxia igaro eta ostras! bat-batean: eta bide hori txukunduko balute zarauztarrek? *Paseo del Alcalde* du izena, gure etxean behintzat, eta *paseo* Zarauzko mugara arte izango da, zeren handik aurrera harria besterik ez da. Hau da marka: behean zein goian harria arazo. Beti entzun izan dugu Miako bidea ezin dela zabaldu; bale, ados, baina Alkatearen Ibilbidean zarauztarrek beren zatia prestatuko balute? Errezoen erdiak eta susto batzuk aurreztuko genituzke. Eta denbora, noski.

Entzun izan dut Errege Bidea dela eta beraz mantendu beharreko ondarea, baina hori esatea erraza da trena eta autopistarako sarrera dituzunean. Beraz, honatx proposamena: Akerregi Txikitik Igarategira (Indauxera) egin den moduan, paseoa osorik bukatu eta larrialdietarako soilik zabaltzea, kotxeentzat bakarrik bada ere. Getariarrok zinez eskertuko dugu, eta Lurraldebuseko neskak ere bai.

Getaiar Haserretuak kasu pixkat egin zidan eta nork daki... agian Zarauzko alkateak ere bai. Bidearen izena mantenduko dugu, lasai.

...TUTERARA

Jon Illarramendi
Euskarari lotua, hemen eta han

Ugariak izan daitezke munduan batetik bestera lekualdatzeko arrazoiak: hango bizimoduekiko jakinmina, lana, ohikoa atzean uzteko beharra, familia, norbera ezagutzeko nahia... Distantziak laburragoak dira batzuetan, luzeagoak besteetan. ARTZAPEn estreinatzera goazen atal honetan denetariko kasuak aurkitzea espero dugu, guztiak noiz edo noiz Getariarekin lotura izan duten pertsonen eskutik.

Oharkabean pasa bazaizue ere, zenbaki borobila du azalean aldizkari honek: "200". Beste edozein bezain aitzakia ona iruditu zaigu atzera begiratu eta 1.goa kaleratzeko unean ARTZAPEko kide zen Jon Illarramendiren egungo bizimodua ezagutzeko. Etxe ondoan dabilela esan daiteke, munduaren zabalerari erreparatuta, hala baitago Tutera (Nafarroa).

"Hemen bizi naiz azken 14 urteetan. Hizkuntza Eskolatik deitu zidaten ordezkapen bat egiteko 2005-2006 ikasturtean. Motza izan zen eta oso gustura egon nintzen", azaldu du Illarramendik. Urtebetera-edo jaso zuen bigarren deia, hura Argia Ikastolakoa —Tuterako ikastola dela esaten bada ere, handik hiru kilometrotara dago, Fontellas herrian—: "Elkarrizketa egin zidaten eta etorri egin nintzen, hezkuntzan esperientzia hartu eta ikasturte bat egiteko asmoarekin. Harrezkero hemen nago". Batzuetan bueltatzeko gogoa pizten bazaio ere, gustura dagoela dio eta oraingoz, behintzat, bertan jarraituko du.

Horrek ez du esan nahi, ordea, Getariarekin zuen harremana eten denik: "Hasieran asteburuero joaten nintzen. Denboraren poderioz, hemen egin nuen bizimodua eta hilean behin joaten nintzen. Orain, gelditzen dira itzultzeko tarte batzuk, lagunekin elkartu, familia bisitatu... Oporraldietan, berriz, beti han nago: Gabonetan, udan...". Gaur egun, gainera, teknologia berriei esker, egunerokoa da harremana.

Jon Illarramendi, Tuterako Argia Ikastolako erraldoiak atzean dituela.

Paisaiari begiratu eta hemengo kolore berdearen zein itsasoaren falta sumatzen du; alabaina, "joaten naizenean, gehiago estimatzen dut". Egokitu da hango horitasun nahiz lehortasunera, eta aitortu du Getariako hezetasuna jasatea zaila egiten zaiola: "Hezurretaraino sartzen zait. Tuteran hotza egiten du baina beste mota batekoa da". Alderantziz, udan kostako freskura baloratzen du.

Euskarari emana

DBHko irakaslea da Illarramendi Argia Ikastolan, Euskara eta Literatura ikasgaia ematen du lau mailatan; horrez gain, tutorea da bigarrengoan. Txikia da zentroa, 200 ikasle ingurukoa, eta herriko zein inguruko haur eta gaztetxoak hartzen ditu: "Erriberan D ereduan dagoen eskaintza bakarra da. Familia askok ahalegin ekonomiko handia egin behar dute beraien seme-alabak bertara eramateko; horrez gain, herrietatik datozen askok distantzia luzeak egin behar dituzte eguneroko joan-etorrietan. Ikastolaz aparte, orain dela urte batzuk Erriberako ikastetxe publiko gehienetan A eredua jarri zuten hautazko moduan, ikasle askorentzat euskarara hurbiltzeko bidea izan dela esango nuke".

Herri mailan, urria omen da euskararen presentzia: "Oso herri erdalduna da. Euskal hiztunak minoritarioak gara eta ditxosozko zonifikazioaren arabera, eremu ez euskaldunean dago kokatuta Erribera, hau da, hemen euskara ez da ofiziala. Gehiengo batek ez du harremanik hizkuntzarekin, ez dute aurkako jarrerarik, ez aldekorik, baina errespetatzen dutela esango nuke". Egoerak hasieran eragindako harridura albo batera utzi eta, gaur egun, ikastolaren inguruko jendearekin finkatu du harremana getariarrak: "Ikastolatik kanpoko jendearekin ere badut harremana baina, batez ere, giro euskaldun horretan mugitzen naiz".

Jon Illarramendi, Tuterako Foruen Enparantzan.

Izan ere, badaude aukerak, baita helduentzat ere: "AEK-k Tuteran eta herrietan ematen ditu eskolak, Hizkuntza Eskola ere bada, Nafarroako Gobernuak helduentzako ikastaroak eskaini ditu aurten eta 50 bat pertsona ari dira euskara ikasten. Tarteka izaten da eskaintza kulturala euskaraz, euskarazko irakurle taldea badago —bertan ibiltzen da—, euskara taldea, jaiak eta euskara uztartzen dituen Tuteran Jai taldea... Euskara ikasi duten jende askorekin dut harremana eta benetan izugarrizko meritua dute".

Alabaina, ezin aurkako jarrerak ezkutatu eta buruan du, esaterako, eskola publikoetan D eredua emateko eskaintza egin zenean egondako kontrakanpaina edo euskararen aldeko zerbait (Nafarroa Oinez, Korrika...) antolatutako bakoitzean entzuten diren kontrako jarrerak. "Entzungor egin eta aurrera egin behar da", erantzun du. Halakoei lotuta, oroitzen du lehen urteetan gertatutako beste hau ere: "Bageunden kuadrilla txiki bat euskaraz hizketan, eta gizon bat hurbildu zitzaigun euskaraz ari ginen galdezka. Esan genion irakasleak ginela, bat Gipuzkoakoa, bestea Bizkaikoa, bestea ez dakit nongoa... 'A, misioetara zatozte', erantzun zigun".

Lortutakoaren erakusle, Ikastolan hezitako ikasleetako batzuk gaur egun irakasle dira bertan. Harago, Illarramendiren esanetan: "Ikastola bukatutakoan, ikasle ohiekin harremana mantentzea pozgarria da eta poza ematen du euskaraz jator-jator agurtzen zaituztenean".

Nekazaritza eta kontserbak

Gizarte mailan Getaria eta Tutera antzekoak dira Illarramendiren esanetan, aisialdian kuadrilletan batzeko ohitura dute, festazaleak dira... "Garrantzia handia dute festek, astebete edo bederatzi egunekoak, denak zuri-gorriz jantzita. Entzierroek izugarrizko inportantzia dute, erraldoiek, jotek...", dio. Bestalde, hemen elkarte gastronomikoetan bezala, peñetan batzeko ohitura dute han. "Funtzio kulturala ere badute: kontzertuak antolatzen dituzte, festetako egitarauak, ekitaldiak... Jaietan denei irekita daude".

Gastronomiaren kultura ere hedatua dago, han, ordea, barazkiek dute gurean arrainak duen lekua. Indartu nahian dabiltza azken urteetan eta ekintza ugari antolatzen dituzte horien inguruan. "Hona etorri nintzenetik barazkizaleagoa bihurtu naiz eta lehen niretzat existitzen ez ziren barazki asko ezagutu ditut: borraja, kardua, txikoria...", aitortu du.

Hargatik, nekazaritza sektore garrantzitsua da Erriberan, eta isla du paisaian, ohikoak baitira barazkien lursailak zein kontserba fabrikak. "Azken urteetan ezagun egin da euskara eta hemengo nekazaritza sustatzen dituen Errigora proiektua". Tuteran ere bada lehen sektorerako joera, eta Ebro ibaiertza baratzez beteta ei dago. "Bakoitzak bere etxola du, ez bi gauzatxorekin, baizik eta sukaldearekin". Familiek bertan biltzeko ohitura dute, baita lagunekin ere. Getariarrak gogoan du gonbidatu zuten eguna: "Han jan nuen bizitzako menestrarik onena. Konturatzen zara prestatzeko nola zaintzen dituzten produktuak, nola sukaldatzen dituzten, barazki guztiak aparte egosi... Getarian marmitakoarekin daukagun goxotasunarekin".

ARGAZKI ERREPORTAJEA: URTARRILEKO EKITALDIAK

Gabonetako Haur Parkean jatekoak egiten.

Gabonetako Haur Parkeko puzgarriak.

Bizarzuri haurren eskutitzak jasotzeko prest.

Laguntzaile ugarirekin etorri zen Bizarzuri.

Erregeen gozokiak gustura hartu zituzten umeek.

Jaiotza, kabalgataren aurretik.

*Egunean behin*eko Getaiarrak taldeko irabazlea.

Axier Lopezen hitzaldia Elkanoz.

Balenciagaren jaiotzaren 125. urteurrenaren aurkezpen ekitaldia.

San Antonetako pilota txapelketa.

Bezperan, txokolate beroa banatzen, plazan.

Haurrentzako ikuskizuna.

Tabernaraino sartu zen Tartalo buruhandia.

Herriko zein kanpoko enpresek euren produktuak jarri zituzten plazan.

Txistulariak jendea mezara bideratzen.

Ander Gonzalez, Mahasti Jaunetako bat.

Arratsaldeko herri kirol saioa.

Uxune Areizaga, bertso saioko gai-jartzailea.

Jende ugari gerturatu zen bertso saioa ikustera.

Libe Goenaga bertsolari getariarra.

LEHEN 200AK IZAN DAITEZEN

2001eko maiatza zen. Inguruko herrietan bertako komunikabideak hedatzen ari ziren. Haien ereduari segi nahian zen Getariako gazte talde bat ere. Arrantzale egunez kaleratu zuten ARTZAPE aldizkariaren lehen alea, "herriko kontuen testigu" izateko asmoarekin. Hura esku artean hartuta ohar gaitezke zenbat aldatu den herria, izan ere, ez dira alferrik pasa hemezortzi urte eta 200 ale.

TESTUA
IURE EIZAGIRRE

Kresal usaia dario oraindik ere ARTZAPEren lehen ale hari, besteak beste, Arrantzale egunaren nondik norakoak, kanpotik etorritako arrantzaleen bizipenak edo Getariako Arraun Elkartearen 25. urteurrena jasotzen dituelako. Ikusi nahiko bazenute, gogoratu digitalizatuta daudela ale gehienak (www.artzape.eus/aldizkari-zaharrak/ edo issuu.com/artzape).

Herriak ez du galdu oraindik ere ofizio eta tradiziorik, hortaz, antzeko gaiak har litezke hizpide 200. alean ere. Eta egin dugu, geurera ekarriz bisigu arrantzaren oroitzapenak eta egungo atunketari handietako esperientzia, adibidez.

Getariako kontuen testigu izateko nahiak, ordea, askorako aukera eskaintzen du, are gehiago hainbeste urtez eta argitalpenez luzatutako proiektu batean. Nork esperoko zukeen duela hainbeste urte?

Gogoan ditugu hasiera haietako kideak, gerora ere gogor eta zenbaitetan itomen sentsazioarekin aritu behar izan zuten ondorengoak, lan baldintza duinik gabe herritarrei hau eskaintzeko ahalegina egitea erabaki zutenak, azken urteetan lantaldea osatzen dutenak, eta nola ez, hilero-hilero beraien ekarpenak egiteko ilusioa erakusten diguten kolaboratzaile leialak.

Joan dira 200 zenbaki eta nahiko genituzke beste hainbeste, beti ere herritarren ezinbesteko babesa sentituz. Izan ere, barruan gabiltzanona baino gehiago da hau getariarrena; bazkideena; paperean nahiz webgunean —105.687 bisita 2019an, alajaina!— irakurtzen gaituztenena; proiektua aurrera ateratzeko ekonomikoki laguntzen dutenena (Getariako Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia barne); eduki jakin batzuk faltan botatzen dituztenena; irakurritakoa lagunartean edo familian komentatzen dutenena; beraien negozioa iragartzen duten merkatari, tabernari eta enpresena; kritikak helarazten dizkigutenena; barruan zer edo zer mugiarazi arren, jakinarazten ez digutenena; laguna azalean agertzen delako bigarren ale bat eskuratu nahi duenarena... Nola esan? Getariarrek topagune komun bat izatea, izan aldizkarian, webgunean, euskara elkartean edo kalean, era batera edo bestera, bizi dutenena.

IRIZABAL,S.A.
ARRAINAK

IPAR KAIA Z/G 20808 GETARIA (GIPUZKOA) TEL.: 943 89 60 10 FAX: 943 14 00 30 C.I.F.: A-20090981

azkuelek

Araba kalea, 41 ZARAUTZ
(Maxi Eroski ondoan)
943-13 04 33 - 619 523 539
azkuelek.com

ETXEKO BERRIKUNTZAK · TELEKOMUNIKAZIOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK · ARGIZTAPENA · DEKORAZIOA · KONPONKETAK · ANTENAK

TXUKUN
LORAZANTZA, S.L.
Lorezaintza, mendiko lanak, indusketak, itxiturak...

660 332 756 - 679 428851
txukunlorazantza@hotmail.com

POLITENA

GURE BEREZITASUNAK:

- Astegunetan:
  Eguneko menua
- Jaiegun eta asteburuetan:
  Luxuzko pintxoak, bokatak eta razioak.
- Eramateko eskariak.
- Wi-Fi zerbitzua.

GETARIA

Kale Nagusia, 9
Tel. 943 140 113

Taberna
Mayflower
Erretegia

katrapona, 4
Tel.: 943 14 06 58 GETARIA

TXOKO
Getaria

txokogetaria.com

Tlf: 943 140 539

Irudia: A. Astui

Herri arrantzale batean jaio nintzen hirurogeigarren hamarkadaren erdian, geurea arrantzalea zen. Eskolarako gogorik ez eta itsasorako bidea hartu nuen. Orain ez naiz arrantzatik bizi, baina itsasoko grina mantentzen dut.

Gure garaiko artisau arrantzak zerikusi gutxi du egungo arrantzarekin, eta ofizio batez gain, bizimodu bat ere galtzen ari da Euskal Herriko herri arrantzaleetan.

Urdinez jantzitako gizon haiek etortzen zaizkit burura, zenbat jakinduria, zenbat bizipen, zenbat istorio... non dago dena? Nork jasoko du haien testigantza?

Duela bi urte, 2018ko otsailaren 10ean, idatzi nuen esku artean duzuen hau. Idatzi honek eta beste batzuek nire gogoeta pertsonala osatzen dute. Hauen guztien asmoa garai bateko arrantzak eta arrantzaleen bizimoduak merezi duten aitormena egitea da.

ARRANTZALE BATEN GOGOETAK

TESTUA
TOMAS OTAMENDI

Garaia da, negua gogorra izaten ari da eta iraganeko oroitzapenak etortzen zaizkit burura. Getariako azken bisiguak 1983ko neguan harrapatu ziren.

Orain dela 35 urte, elur eta izotzezko hizkiekin memorian grabatutako atal bat bizi izan nuen. Hotz eta miseria arteko egunak, txalupa-mutil baten oroitzapenak 82/83ko neguko bisigutako kosteran.

Isil-isilik dago kaia barrenean
Ontzi txuri polit bat uraren gañean
Goizeko ordubietan esnatutzen gera
Arrantzaliak beti joateko urrutira...

Ahapaldi xume horiekin hasten da herri kanta ezagunenetako bat.

Goizeko ordubietan, egunero bezala, aita etorri zitzaidan logelara esnatzera; 17 urte bete berriak nituen. Zaharrak gaurko nire adina zuen —ikuspegi honetatik zein desberdina ikusten den!—.

— Tomas, benga, gora!!! Altxa, ez kendu pijama, panazko galtzak gainetik jantzi. Elurra ari da, kalma dago eta seguruenik itsasora irtengo gaituk.

Sukaldean ama kafesnea berotzen ari zen biontzat. Gizarte matriarkal batean bizi ginen, emakumeek dena egiten zuten. Kafea lau gailetekin jan, arropa geruza guztiak gainetik jantzi, eta amak egindako puntuzko artilezko jertse bat denaren gainetik; geure ama artista bat zen puntuzko jantziak egiten. Material bereko artilezko txanoaz burua estali, lepoko bufanda eta azken kapa bezala, anoraka (berde *guartzibil* barrutik, urdina kanpotik). Goizaldeko ordu biak eta laurdenean irten ginen kalera.

— Jainko maitia!!! Kaka zaharra!

Kaleak zuriak zeuden. Herriaren goialdean bizi

ginen. Gogoratzen dut orduan itsasontzian inork ez zuela autorik eta 16 ginela. Garai xumeak ziren, *paratreneko* eskaileretan, orain mekanikoak direnak, behera jaisten, ilun zegoen eta hontza batek ulu egiten zuen. Bakarrik joaten nintzenean, beldurra ematen zidala zin egiten dut.

Aitak komentatzen zidan:

– Ze, Tomas hotza?
– Bai.
– Berotuko hintzatekeen, guk bezala joan beharko bahu tostartekuei deika etxez etxe, baserriz baserri!!! Izan ere, gaur egungo jendia...

Eta horrela, palazioko hormaren kontrako aldapatik behera, parkeko bidegurutzera heldu ginen, taxiaren geltokira. Hantxe elkartu ginen Herrerieta kaletik jaisten ari zen tripulazioko kide batekin, Rufino zenarekin

– Egun on!!! Nire urtebetetzea dek —47 betetzen zituen— eta denbora honekin atera behar al degu? Gaur ez gaituk ateako noski!!! *Solamente* ateratzen bagea, ez zait inoiz ahaztuko—. Ez zitzaion ahaztu; zenbat aldiz aritu ginen txantxetan horri buruz urteak pasa eta gerora...

Getariako elurtutako Kale Nagusitik jaitsi ginen Artzaperaino. Urte hartan bisiguaren eta legatzaren kostera egiten genituen lau ontziren tripulazioak bat egin genuen. Ez ginen, ohikoa zen bezala, barku aurrera arte joan, Artzapen gelditu ginen, dudako eguna zenez, aginduen zain.

Jendearen arteko solasean gogo gutxi zegoen:

– Irten ote dira hondarribitarrak?—. Gauza da han agertu zirela hiru patroi, bizitza osoko bi lagun

Nuevo Caximirona, itsasontzi honetan kokatzen da kontatutako gertaera. / Argazkia: Tomas Otamendi.

Orduko Getariako portua, elurtuta. / Argazkia: Tomas Otamendi.

Piapeko tuneletik behera, mila abenturatan landuak bai itsasoan bai lehorrean, eta hirugarren bat bere hiru semeekin Kaiako eskaileretatik jaisten. Patroiek hitz egin zuten haien artean —orduan erabateko hierarkia zegoen—, eta aho bateko agindua izan zen:

– Itsasora!

Moilan barku guztiak katean zeuden, korrontearen arabera tenkatzen eta lasaitzen ziren atzera eta aurrera. Botearen bila joan eta bolinean barku aurrera arte heldu nintzen. Tripulazioak txalupara salto zuen bisigurako karnatarekin: hiru lantzoi kaxa izoztuak eta beste bi sardina kaxa legatzetarako. Astillero jatetxe azpiko arrandegian "Alfontxo lehengusua" izaten genuen geure zain karnata emateko egunero. Arrandegian laguntzen zuen itsasoko erretiratua zen.

Ontziko tripulazioak salto egin genuen itsasontzira, uretako arropak jantzi, *auxiliarra* eta motorra martxan jarri eta kubierta *baldeatu*. *Arria txikoteak* eta maniobra ona egin genuen atzeraka itsasontzien kateen eta txikoteen nahaspila hartan, Pedro Joxen *aorrean* popa sartu, maniobra egin eta moila bitartean lerrokatu genuen itsasontzia. Amabirjinaren aurretik igaro ginenean, patroiak txapela kendu, eta aitaren egiten zuen bitartean, "Salve" agindu zuen.

Oharra: *kontakizunak ARTZAPEren hurrengo aleetan jarraituko du. Ez galdu!*

IBAI ARANGUREN

"BETIDANIK IZAN DUT ARRANTZARAKO ZALETASUNA"

Lanean denean 06:00etan esnatzera ohituta, hemen "oporretan" dagoenez, ARTZAPEk 11:00etan jarri du hitzordua. Ibai Aranguren da gaurko protagonista; Getariako arrantzale gazteenetarikoa, gazteena ez bada. Arangurenek oso ohikoa eta ezaguna duen lekua aukeratu dugu elkarrizketarako: Getariako moila. Hala ere, azken hilabeteetan, ez da gehiegi ibili inguru hauetan, izan ere, esperientzia berrien bila, Afrikan, Ozeano Atlantikoan, arrantzan aritzen den atun ontzi handi batera egin du salto.

TESTUA
INTZA GURRUTXAGA

ARGAZKIAK
IURE EIZAGIRRE

Ez da Afrikan arrantzan dabilen getariar bakarra, orain dela hamar urte pasa —89. zenbakian— ARTZAPEk elkarrizketatu zituen han lanean zebiltzan zenbait herritar. Gaur-gaurkoz, 21 urterekin, Aranguren da Ozeano Atlantikoan arrantzan dabilen getariar gazteena. Hasiberria ere bada, izan ere, pasa den azaroan itzuli zen lehen joanalditik. Han lau hilabete igaro ondoren, beste lau ari da pasatzen etxean.

Ibai Aranguren.

"Txikitatik esan izan dut aitarekin joango nintzela; ontzi handiagoak ikusita, probatu nahi nuen"

Albacora Quince itsasontzia, Arangurenen lantokia lau hilabetez. / Argazkia: Ibai Aranguren.

Noiztik eta nondik datorkizu arrantzarako zaletasuna?
Betidanik izan dut. Aitak itsasontzia dauka eta beti han sartuta ikusten nuen. Nik txiki-txikitatik esan izan dut aitarekin joango nintzela, eta gero, itsasontzi handiagoak ikusi nituenean, probatu egin nahi izan nuen. Gero eta itsasontzi handiagoetan hasi nintzen lanean, eta orain, kanpora joan naiz.

Arrantzale gisa noiz hasi zinen?
Gogoratzen dut hamabi urterekin, aitarekin, igande arratsalde batzuetan, sarea botatzera joaten nintzela. Pare bat ordu egiten nituen, gehiago ez. 15-16 urterekin egun bakan batzuetan joaten nintzen. 17rekin, astebetez, atunetan, marea bat egin nuen. Aitarekin lanean, ordea, 18rekin hasi nintzen, uda osoa egin nuen. Hala ere, eskola bukatu eta lanean profesionalki, Getarian bertan, 20 urterekin hasi nintzen.

Arrantzan hasi behar zenuela esatean, zer zioten ingurukoek?
Asko harritzen ziren. Jendeak galdetzen zidan: "Itsasora? Nolatan?". Aita hor daukat eta niretzat ez da bizitza txarra. Ohitu egiten zara, probatzea da kontua.

Zenbat itsasontzitan aritu zara?
Aitarekin hasi nintzen, eta gero Getariako itsasontzi handi batean. Orain, berriz, atunketarian probatu eta gaztea izanik, kanpora joan nahi nuen. Aitak ere esaten zidan ez banintzen gaztetan joaten, ez nuela inoiz egingo. Orduan, erabaki nuen joan eta ez bazitzaidan gustatzen, geratuko nintzela hemen. Oraingoz gustura nabil eta bertan jarraitzeko asmoa dut.

Gustuko duzun lanbidea al da?
Bai, asko gustatzen zait. Egun onak eta txarrak daude, baina bestela, gustura ibiltzen naiz.

Beti entzun izan dugu lanbide gogorra dela.
Bai, hala da. Pentsatu izan dut "nahiago oraintxe lehorrera irten, lana utzi eta etxera joan"; beste batzuetan, berriz, "hemen baino hobeto, inon ez". Hori bai, itsasoan ahaztu, tailerrean bezala, zortzi ordu egin eta etxera joateaz. Itsasoan 16-18 ordu, edo behar adina, egin behar dira. Normalean, ordutegirik ez daukazu.

Ikasketak ere arrantzaren inguruan egin dituzu, ezta?
Lehenengo, Pasaian, bi urtetan, alturako patroi titulua atera nuen. Orain, berriz, kapitain titulua ari naiz ateratzen.

Kanpoan bai, baina zehazki non arrantzatzen duzue?
Erreleboa Dakarren, Afrikan, egin genuen. Itsasontzian zeudenak, ia denak, etxera joan ziren eta gu sartu ginen. Dakarretik atera, eta hasieran, han inguruan ibili ginen, iparraldean, Mauritanian. Bukaeran, behe aldera joan eta Boli Kostan sartu ginen. Handik, Abidjan hirira; erreleboa egin eta gu etxera itzuli ginen.

Itsasontzia, ordea, nongoa da?
Enpresa bermeotarra da. Han ibiltzen diren itsasontzi gehienak hemen inguruan egindakoak dira. Behin hara eramanda, ez dira ia inoiz etortzen, oso

tarteka, konponketaren bat egitera-edo, agian, Vigora.

Noiz hasi zinen lantoki honetan?
Uztailaren 13an edo 14ean joan nintzen, eta azaroaren 17an bueltatu. Lehenengo kanpaina izan da hau, beraz, lantoki honetan denbora gutxi daramat.

Erabakia erraz hartu al zenuen?
Erraz, erraz, ez. Ondo pentsatu nuen. Esaterako, Getariako festak galdu nituen, eta horrekin, hasiera batean, asko pentsatzen nuen. Gero esan nuen, "horrela tokatzen bada, horrela tokatzen da, dena ezin da eduki".

Aitak eta amak, biek animatu ninduten. Amak ere, hori nahi banuen, joateko esaten zidan. Gero pena handia eman zion, baina... Aitak esaten zidan bera berriro gaztea izango balitz, segur aski, kanpora joango litzatekeela. Lagunak, berriz, asko harritzen ziren. Entzun zutenean lau hilabete itsasoan egongo nintzela, bueltatu gabe, pixka bat beldurtu ziren. Arraroa egin zitzaien; gero, batzuek esan zidaten meritua nuela eta...

Nolakoa da zuen ontzia?
Ni ibiltzen naizenak luzeran 85 metro ditu eta zabaleran 13,5 inguru. Ontzi handiak dira, edukiera handikoak. Betetzea kostatu egiten da, nahi baino gehiago askotan.

Zenbateko edukiera dauka?
1.250.000 kilo. Hori betetzeko, gutxi gorabehera, hilabete inguru behar izaten dugu. Azkeneko marean 35 egun pasa genituen itsasoan, eta ontzi erdia bete genuen. Beste bi mareatan, ordea, hilabete eskas egin genuen eta ontzia beteta etorri ginen.

Zenbat lagun egoten zarete?
31. Baina ontzia hain handia izanik ez du ematen horrenbeste pertsona gaudenik. Konparatzeko, Getariako ontzi batean, hamabost lagun inguru ibiltzen ginen.

Zuk zein eginbehar dituzu?
Ni zubiko ofiziala naiz. Lehen, garai batean, "kosta" zena. Guk zubian pasatzen dugu eguna, aparatuei begira, ea arrainik bilatzen dugun. Gero, nire lana izaten da objektuak kontrolatuta edukitzea, haiekin egiten baitugu lan.

Objektuak 1,6 metro inguruko burdinazko hexagonoak dira, baliza modukoak. Plastiko batekin biltzen dira eta azpitik flotagailuak dituzte. Horri lotuta, koloretako plastikoekin, 50 metro luzerako sare puska bat jartzen da, eta behe-behean pisua. Patroiak esandakoan, objektuak prestatu eta uretara bota behar ditut. Bertan uzten ditugu, eta arrainak, bueltaka, horren inguruan pilatzen hasten dira, ez dakigu ongi zergatik.

Objektuari aparatu bat lotzen diogu, jakiteko, une oro, non dagoen, zein arrain duen azpian eta nora doan. Gauetan, objektu horiei buruzko informazioa ordenagailuan sartzen dut: zenbat objektu bota ditugun, non, noiz...

Zenbat ontzi ibiltzen zarete inguru berean?
Gehienetan bakarka ibiltzen gara. Hala ere, normalean binaka egiten dugu lan: guk, beste ontzi batekin etengabeko komunikazioa daukagu. Arrain asko bilatzen badugu, besteak ere etortzen dira. Ibili izan gara hamar ontzi-edo batera, baina, normalean, bakarrik.

Zer arrantzatzen duzue?
Hegaluzearen familiako arrainak: atunak dira baina han *aleta amarilla*, *atún Rabil* edota *yellowfin*, ingelesez, deitzen diote. *Serrutxoa* ere harrapatzen dugu.

"Itsasontziak 1.250.000 kiloko edukiera du. Hori betetzeko, gutxi gorabehera, hilabete inguru behar izaten dugu"

Zein teknika erabiltzen duzue?
Inguratze teknika, Getariako ontziek antxoa, berdela, sardina... harrapatzeko erabiltzen duten bera. Alde bakarra da gure sareak eta ontziak handiagoak direla.

Nolakoa da zuen egunerokotasuna han?
06:00etan jaikitzen gara. Gosaldu eta zuzenean, arraina bilatzera, zubira, joaten gara. Arrantzatzen iluntzean bukatzen dugu, 18:30-19:00ak aldera. Guk, ordea, oraindik lana izaten dugu, objektuaren hori, esaterako. Kapitainak ere bere txostenak bidali behar ditu.

Bakoitzak zuen logela duzue?
Arrantzaleak, beltzak badira, binaka egoten dira eta zuriak, banaka. Zubikook bakarka egiten dugu lo, eta makinetan aritzen diren gehienek ere bai.

Zure adinekorik ba al dabil?
Kanpaina honetan ni baino bi urte zaharragoko batekin egon naiz. Biok zubian egoten ginen. Ondo etortzen da gazte bat egotea. Beste ontzietan ere jende gaztea ikusten da. 22-25 urteko gazteak sartzen ari dira; asko Bermeokoak dira. Hala ere, tituludun jendea behar da.

Piratekin noizbait topo egin al duzue?
Ez ditut inoiz ikusi. Entzun bai, baina hortik aurrera ezer gutxi. Gu Afrika mendebaldean ibiltzen gara. Puntu batean, piratak badaude; arrantza-ontziei ez baina merkantzia ontziei eraso egin izan diete. Hala ere, Afrikako alde honetan, Atlantikoan, gutxi daude. Toki batean bakarrik, eta ez dira Indikokoak bezalakoak.

Zein izan da zure esperientziarik txarrena?
Denbora gutxi daramat itsasoan, eta beldurra pasatzeko moduko esperientziarik, oraingoz, ez dut izan. Hala ere, maniobra batean, sarearekin kable bat puskatu zitzaigun eta susto handia hartu genuen, ze kableak norbait harrapatu izan balu...

Ibai Aranguren Getariako moilan.

Bestalde, egun bereziena?
Ni, lau hilabete hauen ondoren, 300.000 kilo arrain harrapatu genueneko oroitzapenarekin geratzen naiz.

Adin ezberdinetako lankideek zer kontatu izan dizute arrantzak urteetan izandako aldaketez?
Esaten dute urterik onenak pasa direla. Gaur egun, arrainari izugarrizko egurra eman zaio eta han inguruan gero eta arrain txikiagoa dago, eta gutxitzen ari da. Ondorioz, kupoak jartzen hasiak dira. Guk hiru hilabetetan hiru milioi kilo harrapatu ditugu, baina gurekin bikotea osatzen duen ontziak, hiru hilabete eta erdian, 5 milioi harrapatu ditu. Arrain kantitate oso oso handiak dira eta erritmo horri eustea zaila da. Itsasoari errekuperatzen utzi behar zaio, eta horregatik, arrantza mugatu egin behar da.

Arrantza eredu tradizionaletatik datozen zenbaitek aurrerapenaren garaian hasitakoak "arrantzale" izatea ere zalantzan jarriko du. Halakorik entzun behar izan duzu? Nola bizi duzu hori?
Bai, batez ere adin bateko jendeari entzun izan diet, jubilatzeko garaian daudenei. Esaten dute, oraingoarekin konparatuta, lehengoko arrantza askoz gogorragoa zela. Lehen ez dakit nola ibiliko ziren, eta ez nuke probatu nahiko.

Nola ikusten duzu arrantza mundua? Ba al du etorkizunik?
Nik uste etorkizun handia duela. Azkenean, nahi edo ez, ontziak galtzen joango dira, eta geratzen direnek, bai hemen inguruan, Kantauri itsasoan, bai han, ondo biziko dira.

Nolako etorkizuna aurreikusten duzu?
Kilo gutxiago harrapatu beharko dira, bai edo bai. Baina horretara ere jarri egin beharko gara. Kilo gutxiago harrapatu, baina arraina garestiago salduko dela iruditzen zait. Orduan, dirutan, egoera orekatuta geratuko da; hori pentsatu nahi dut, behintzat.

Obrak Herrerietan

KALEA IRISGARRIAGOA BILAKATZEKO LANAK

Eginbeharrek lau hilabete inguru iraungo dute, eta kalea itxuraldatzearekin batera, irisgarritasun eta mugikortasun handiagoa eskaini nahi diete herritarrei. Lanak aprobetxatuz, egun hoditeria beretik doazen euri urak eta ur zikinak, behar bezala gera daitezen, bereizi egingo dituzte.

TESTUA
INTZA GURRUTXAGA

Pasa den urte amaieran, Herrerieta kalea berregituratzeko eta euri urak jasotzeko sare berria eraikitzeko lanak nork egin erabakitzeko prozedura irekia jarri zuen martxan Getariako Udalak. Abenduan, proposamen desberdinak aztertu ondoren, Alzola enpresak irabazi zuen esleipena, eta beraz, bera arduratuko da lan horiek egiteaz.

Iñigo Peñalba Arribas arkitektoak egin du proiektua, eta Udalaren aurreikuspenen arabera, hil honen, otsailaren, erdi aldera hasiko dira lanean. Haritz Alberdi alkateak ARTZAPEri adierazi dionez, hasiera batean, soilik, urbanizazio lanak egitea aurreikusten zen, "udazkenean, ordea, ur hoditeria berritzea beharrezkoa zela ikusi genuen, eta lan horiek ere orain egitea erabaki dugu". Izan ere, azken aldian, hoditeriak arazoak sortu izan ditu, eta beraz, urbanizazio lanak aprobetxatuz, ur zikinen eta euri uren hodiak bereiziko dituzte.

Lanek, guztira, 383.151,51 euroko aurrekontua dute. 280.344,17 euro Udalaren diru-poltsatik datoz zuzenean, gainerako 102.807,33 euroak Gipuzkoako Ur Kontsortziotik. Iragan azaroko osoko bilkuran Gipuzkoako Ur Kontsortzioarekin duela bost urte egindako hitzarmena luzatzea onartu zuen udalbatzak. Hitzarmen horri esker, Udalak 149.310 euro jasoko ditu uraren erakundetik. Hala, bada, euri urak bideratzeko sarea diru horren zati bat erabilita egingo da.

Alzola enpresak Herrerieta kaleko lan guztiak amaitzeko lau hilabeteko epe-muga du. Beraz, ekainaren erdi alderako amaituta behar lukete.

Euri urentzako sarea

Egun, Herrerieta kalearen hasieran, Elkano jatetxearen eta Indauxeko etxeen artean, euri urak eta ur zikinak hoditeria beretik joaten dira, bereizi gabe. Lan hauen helburua bakoitzari bere bidea egitea da.

Alkatearen hitzetan, "horrela, urarekin sortzen diren arazoak desegitea espero da. Bestalde, ikuspegi ekologikotik ere, urari ematen zaio eman beharreko bidea". Bi hodien bereizketa ia herri osoan dago eginda, "zati txiki batzuk falta dira, eta horietako bat Herrerieta hasierakoa da". Lan horiek amaitzean, Herrerieta kaleko hoditeria guztia bereizita geratuko da.

Urbanizazio lanak

Herrerieta kaleko lanak zazpi zatitan daude banatuta. Elkano jatetxe aurretik Potzuaga auzora, guztia berritu eta berregituratuko dute. Helburu nagusia da ibilgailuen zein oinezkoen irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzea.

- **1. zatia.** Herrerieta kalearen lehenengo parteari dagozkion lanek osatzen dute zati hau. Bertan, Taxco tabernaren aurrean dagoen plaza berrantolatuko da: bi lorategiak kendu eta inguruan baldosak, bankua eta iturria jarriko dituzte.

  Errepidearen beste aldean, lurpeko edukiontziak estali eta motoentzako aparkalekuak sortuko dituzte. Hasiera batean, hor dauden zaborrontziak kenduko dituzte, ondorioz, inguruko bizilagunek Jose Antonio Agirre Lekube lehendakariaren enparantzako, Merkeko plaza aurrerantzean, edukiontziak erabili beharko dituzte.

  Legez, inguru horretako bizilagun kopuruak sortzen duen zaborra kontuan izanda, Taxco pareko edukiontziak ez dira beharrezkoak, Merkeko plazakoekin nahikoa da. Alberdiren esanetan, "Udalak herriaren eta herritarren onurarako, Taxco aurreko zaborrontziak kentzearen alde egingo du". Hala ere, erabakia hartu aurretik herritarrei galdetuko diete: "Edukiontzi horiek jarri edo ez erabakitzeko, auzokoekin eta merkatariekin bilduko gara". Jartzea erabakiz gero, kalearen ezkerraldean, Taxco aldeko espaloian, egongo lirateke.

- **2. zatia.** Merkeko plazan hasi eta Indauxeko etxeen hasieran amaitzen da. Hemen ere, kalearen eskubian dauden lurpeko edukiontziak estaliko dituzte. Horri esker, autoentzako hiru aparkaleku berri sortuko dituzte.



- **3. zatia.** Indauxeko etxeen aurrean, errepidea asfaltatzeaz gain, lurpeko edukiontziak estali, eta motoentzako aparkalekuak sortuko dituzte. Horrez gain, kalearen ezkerraldean dagoen zebra-bidea egokitu eta espaloiaren erpinetara gerturatuko da.

- **4. zatia.** Indauxeko etxeen amaieratik Izarri okindegiaren aurreko bidegurutzerako zatia. Bertan, kalearen ezkerreko aldean dauden aparkalekuak zeharkako izatetik lerroko izatera pasako dira. Horrela, hamar aparkaleku geratuko dira.

Zazpi zatitan zehaztu dituzte Herrerieta kaleko lanak.

Esku-hartze horren helburua da, batetik, ezker aldeko oinezkoen espaloia lau metrotara zabaltzea, eta bestetik, "noranzkoa aldatuz, bai oinezkoei bai errepidean doazen ibilgailuei, oztopoak ekiditea", argitu du alkateak.

Izarri okindegia baino apur bat beherago, beste zebra-bide bat egingo da. Horretarako, eskuin aldeko aparkaleku eta zuhaitz bana kenduko dituzte. Aldaketa horien eraginez, kalean zehar dauden farolak tokialdatuko dituzte.

- **5. zatia.** Izarri okindegiaren aurreko guneari dagokio. Lurpeko edukiontziak estali egingo dituzte, eta horri esker, hiru aparkaleku berri sortu. Gainera, orain lurpeko edukiontziak dauden zatiaren ondoan zebra-bide berria egingo da.

- **6. zatia.** Magallanes kaleko bihurgunean, galtzadaren ezkerraldean dauden aparkalekuak berrantolatuko dituzte. Horrela, lerroan, hiru aparkaleku geratuko dira. Horrekin batera, kalearen ezkerralde osoan, 1,5 metroko espaloia eraikiko dute. Eskubiko aldean, berriz, motoentzako eremua jarriko dute.

- **7. zatia.** Potzuagako ingurunea hartzen du. Bertan, eskubiko espaloia egokitu, eta ezkerreko aldean hormigoizko zintarria egingo dute. Galtzada 20 zentimetro inguru altxako dute, eta horri esker, egun Potzuaga eta Akerregi kaleetara igotzeko dauden malda aldaketak saihestuko dira. Helburua da malda aldaketa zakarrak leuntzea.

  Zati honen amaieran, zebra-bide bat jarri eta ezkerreko aldean dagoen espaloia zabalduko dute.

elan euskadi
ONGD - GGKE

Klima aldaketaren ondorio larriak

Pasa den urteko ikono bihurtu zaigu Greta Thunberg izeneko ikasle gaztea eta aktibista politiko suediarra. Gaztea da bera, gazteegia izan daiteke askorentzat, ahula neska delako asko horientzat, edota gehiengoarentzat. Iazko urteko azken goi-bileran ere parte hartu zuen 2018an eskola-greba bat hastearen aitzakian mundu osoan ezagun egin den borrokalariak.

Pasa den abenduaren 2tik 13ra egin zen Madrilen klimaren inguruko goi-bilera (COP25) Txilen (Hego Amerika) zen egitekoa, baina bertako biztanleria kalera atera zen herrialdearen garestitzeagatik protestatzera, eskubide demokratikoak defendatzera eta diktadurak oinordetzan jasotako konstituzioa aldarrikatzera. Hori dela eta, Espainiako Gobernuak eskainita, Madrilek hartu zuen testigua, eta beraz, bertaratutako gonbidatu denek aldatu behar izan zituzten beraien bidaia-txartelak, diru gehiago gastaraziz. Hizlariak, noski, gizon zuri aberats eta enpresariak izan ziren.

Desberdintasunak areagotuz

Pobreen eta aberatsen arteko aldea areagotzen du klima aldaketak. Herrialde garatuenak dira berotegi efektuko gas gehien isuri dutenak historian. Azken 150 urteetan, berotegi efektuko gasen isurketen %80 herri industrializatuek egin dituzte. Gainera, bere horretan segitzen dute —iraingarria!—, garabidean diren herrialdeekin batera: Txina, India edo Brasil. Klima aldaketaren eragin handiena sufritzen dutenak, aldiz, tropikoen arteko eremuan bizi direnak dira, txiroenak, alegia.

Azken finean, gero eta pertsona gehiago bihurtu dira migratzaile kliman eta naturan izaten ari diren aldaketak direla medio. Izan ere, haien bizi baldintzei kalte egiten dieten eragile bat baino gehiago daude: klima aldaketa, hondamendi naturalak, urtegi erraldoi baten eraikuntza eta abar. Ondorioz, beren bizilekua utzi, eta gutxieneko duintasunez biziko diren beste lur batzuen bila abiatzen dira.

Hondamendi naturalen indarra eta maiztasuna handitzeari dagokionez, Asia Pazifikoa da eremurik kaltetuena. Bertan gertatzen dira hondamendi naturalen bi herenak, eta heriotza indizea ere egundokoa da. Itsasoaren mailak gora egingo balu, Pazifikoko uharte gehienetan ezingo litzateke inor bizi; labore lurren eta akuiferoen gazitzeak, berriz, antzeko eragina izango luke Ekialde Hurbileko ibai handien deltetan.

Europako ikerketa baten arabera, klima aldaketak eragindako lehorteek eta ur eskasiak, eta garapen ekonomiko kaskarrak migrazioak eragingo dituzte Espainiako hego-ekialdean.

ZAINTZA EGUNAK

Otsailean ez du zaintzarik.

FULDAIN FARMAZIA

Getariako ikurra: sinboloak

Liburuak irakurtzen eta begiratzen ditugu bibliotekan: esaldiak, marrazkiak, argazkiak, pertsonaiak; eta horiei buruzko sentipenak, interpretazioak, iritziak trukatzen ditugu. "Hau gustatu zait", esango du batek; "ze ederra", beste batek, edo "ze zatarra"; "aspergarria" edo "atsegina", "dotorea" edo "nahasia", "hutsala" edo "interesgarria".

Irakurtzen dugunari buruz hitz egiten dugu askotan, pelikula bat ikusi ondoren komentatu egin ohi dugun antzera. Baina bitxia da: marrazkiak, irudiak, koloreak, konposizioak, argazkiak, ilustrazioak begiratzen ditugunean, ez daukagu iritziak trukatzeko halako ohiturarik.

Getariako liburutegian arrainei eta itsasoari buruzko liburuak erakusten ditugu aldika. Eta behin batean, irakurle gaztetxo batzuek baleaz jardun zuten, eta barre egin zidaten abestuz: *zarauztarrak txoruak...!*

Getariako gaur egungo ikurrarekin gogoratu nintzen, balea handi bat baitauka erdi-erdian, protagonista nagusia. Eta orduan irudi osoari begira jarri nintzen, zer ageri duen zerrendatzen...

- Esaldi bat espainieraz.
- Euskarazko esaldirik ez dago.
- Bi gizon alboetan.
- Emakumerik ez dago.
- Erregeak dira ezpatadunak.
- Arrantzalerik, saregilerik, ardogilerik ez dago.
- Hiru errege-koroa denera: handi bat eta bi txiki.
- Hiru tresna hilgarri: bi ezpata eta arpoi bat.
- Uretan, balea hilzorian.
- Urrezko koroa handiaren barruan, mundua.
- Mundua, latinezko hitzez lotua.

Gerraren batekoa dirudi "*noble, leal e invicta villa de Guetaria*" esaldi gaztelaniazkoak. Bi gizonezko ezpatadunak Espainiako erregeak izango dira seguru asko. Eta abar. Zein da irudi, ikono, sinbolo horietako bakoitzaren esanahia? Zergatik eta noiztik daude herriko ikurrean? Noiz arte?

Ikur guztiek esanahia dute. Esanahi bakoitzak funtzio bat dauka. Eta funtzio bakoitzak operazio komunikatibo bat egiten du gure gogoan, adimenean, irudimenean; baita ere herrira datozenengan, noski. Nor gara? Zer adierazten dute Getariako sinboloek? Herritarrak errepresentatzen ote dituzte 21. mendean?

Herria eta eskola

Getariarrok, gogoratzen al dituzue eskolan igarotako lehen urteak? Bertan ezagututako ikaskide eta lagunak, atari orduetan asmaturiko jolasak, lehen haserreak eta adiskidetze momentuak; *ikus-ikusi han, teilatu gainean* abestuz irudikaturiko elefanteak edo *Ran Rober Ran* kantatuz eginiko bidaiak; irakasleen ahotsak eta nola ez, haserreak eta negarrak baretzeko erabiltzen zituzten hitzak; San Anton mendira eginiko irteerak, zuhaitzen artean galdu eta esploratzaile bihurturiko arratsaldeak... Zenbat oroitzapen eta zeinen garrantzitsuak guztiak!

Oroitzapen horiek bizirik iraun dezaten, buru-belarri lanean dihardugu Iturzaeta Herri Eskolan. Ikasleak helduen mundurako prestatzea du helburu gure Hezkuntza Proiektuak eta horretarako, esperientzia anitzak eskaintzen ditugu: proiektuak, tailerrak, ikas eremu desberdinak... Bide horretan, haurrak ditugu protagonista, horiek dira eta hezkuntza ibilbidearen sortzaile eta gidari.

Guk zuen seme-alaben bidaide izan nahi dugu, eta hezkuntza komunitateari ere ateak irekitzen dizkiogu horretan laguntzeko: familia, jangelako begirale, garraioaren arduradun, garbitzaile eta herriko beste edozein pertsonei. Elkarlanean ematen baitiogu bizia guztiona den proiektu honi, elkarrekin eta elkarrengandik ikasiz. Gure Eskola gurea bezainbeste, zuena ere badelako!

Familia txiki-handi bat osatzen dugu hemen: beraiek, zuek eta guk. Elkarri kezkak kontsultatuz eta zalantzak argituz, guztiok bide berdinean egiten dugu aurrera, bizitza biziz eta etorkizuna eraikiz. Hezkuntza guztioi dagokigulako.

Gure etxera etorri nahi? Animatzen bazarete, bide hori elkarrekin hasiko dugu.

Sentitu etxean bezala Iturzaeta Eskolan. "Urratsez urrats, infiniturantz!" egingo dugu elkarrekin! Hori da eta gure leloa. Elkarrekin. Herritik eta herriarentzat. Herria eta Eskola. Eskutik.

Herrian hazi eta bizi
Herrian ikusi eta ikasi
Herrian mugitu eta herria mugiarazi
Hezkuntza guztioi dagokigulako
Iturzaeta Herri Eskola ♥ Getaria

URRITZA AISIALDI TALDEA

Txuri Urdinen

Kaixo, irakurle!

Urtarrila ere ari da pixkanaka-pixkanaka amaitzen, baina ea ba, begira dezagun atzerantz, zehazki urtarrilaren 2rantz.

Urtero bezala, Urritza Aisialdi Elkartekook Txuri Urdin izotz jauregira egin genuen irteera, aurten, ordea, aldaketa batekin, arratsalde-pasa beharrean, goiz-pasa izan zen. Goizeko 10:15ean geratu ginen plazan, 30 haur eta 5 begirale. Txikienak urduri samar zeuden patinatzen zuten lehen aldia baitzen, zaharrenak, berriz, irrikaz kantari joan ziren autobusean.

Bertara iritsi ginenean, izotz jauregiaren aurrean, eguzki goxotan, hamaiketakoa egin genuen, 11:00etan baikeneukan hitzordua bertakoekin. A ze kaosa eskularruak, patinak eta kaskoak janzteko orduan! Urduritasuna zen nagusi, denak pistara sartzeko amorratzen zeuden.

Pistara sartu ginenean, batzuek laguntza behar izan zuten, besteak dagoeneko profesionalen pare ibili ziren baina amaierarako haurrak begiraleen aldean artistak zirela ohartu ginen. Amaieran sorpresatxoa ere izan genuen, disko festa itzela muntatu baitziguten. Garbi geratu zen Getariako haurrak patinatzen onak eta patinen gainean dantzan are hobeak direla!

GETARIAKO HITZA

ANDRES ALBERDI

Bolinean

Ez dakigu euskal kostaldeko beste herrietan Getarian ematen zaion adiera berean erabiltzen den hitz hau. Googlen egindako bilaketek ez digute ez daturik ez aurrerapiderik ematen horretarako. Argazkian ikus daitekeen bezala, txaluparen txopan arraunari eraginez ontziari aurreranzko mugimendua eginarazteko arraunketa-modua da (gaztelaniaz *cingar* esaten diote). Getarian, txanaletan eta baporeen zama-boteetan egiten zen/da horrela arraunean (ikus argazkia). *Boliñian joan da baporeraino. Lehen, moilaldeko mutiko guztiek zekiten boliñian.* Itxura guztien arabera, belaontzietan erabiltzen den nabigazio-teknika batetik dator izena. Haizearen kontra baina haren indarra aprobetxatuz sigi-sagan nabigatzeari deritzo horrela. Gaztelaniaz, *navegar de bolina* edo *bolinear* esaten zaio teknika horri. Ingelesezko *bowline* hitza omen dago jatorrian.

Getarian eta inguruetan esaten diren hitzen txokoa da hau. Animatu eta bidali *info@artzape.eus*era ezagutzen dituzun hitzak.

EDURNE IRIGOIEN

PLIST & PLAST

AMAIA IRAZABAL

Botak

Botak nahi ditut! Hain politak,
hain goxoak, hain bereziak.

Maitemindu naiz botetaz!
Ezin ditut burutik kendu botak!
Botak, botak, botak, botak, botak, botak,
booooooottttttaaaaaaakkkkkkk!!!!

Nire burua *look* horrekin, *tal cual*.
Harro nago nitaz bota hoiek
jantzita ditudala.
Bota hoiek nire espresioa dira.
Bota hoiekin ikusiko nauenak
gauza onak pentsatuko ditu nitaz,
nik niretzako nahi ditudanak.
Gauza onak ikusiko ditu nigan,
bereziki niretzat onak direnak.

Gustatzen zait nire irudia
bota hoiekin, bai,
seguru noa bota hoiekin,
Baliotsuagoa naiz, lokarriak
horrela jartzea erabaki dudalako,
nortasuna dut. Nor naizen
erakusten dute bota hoiek.

Bota hoiekin bai,
bota hoiekin ni naiz.

JOXI ERAUSKIN

Zuloa

Xabier Gantzarainek *Zuloa* liburua argitaratu zuen 2012. urtean, Tene Mujika Beka irabazi ondoren. Elkarrek argitaratutako liburu horretan Euskal Herriko historia hurbila aztertzen du Gantzarainek, 23 artelan kontuan hartuta. "Zuloa izena joko bat da, oroimen joko bat, artelanetan geratzen denaren analisi bat egiteko joko bat", dio egileak.

23 artelan horiek sakonki aztertzen ditu nola testuinguru historikoan hala soziopolitikoan, eta beste hainbat ikuspegitan. Nolabait, gaur egungo Euskal Herriaz irakurketa bat da; gure historia hurbileko gertakizunak edo aldaketak ageri dira artelan horietan. Horretarako, gaur egungo eta lehenagoko artistak aukeratu ditu inongo mugarik gabe, bai haien margolanak bai eskulturak.

Aldi berean, liburu honekin artea eta gizartea aldenduta leudekeen iritziarekin amaitu nahi du. Gantzarainek ikusten duen artea eta horretan lan egiten duten artistek gauza asko esaten diote munduaz eta bizi garen Euskal Herriaz.



2020ko OTSAILA

Agenda www.artzape.eus webgunean eguneratzen dugu. Adi egon!

31 Ostirala
Erradikalak ginen
Ordua: *20:00*
Lekua: *Getariako gaztetxea*
Antolatzailea: *Getariako Eskubide Sozialen Karta*

X. Floren Memoriala futbito txapelketako bilera informatiboa
Ordua: *20:00*
Lekua: *Gure Txeruren lokala*
Izena emateko orriak bertan banatuko dituzte. Gutxienez, talde bakoitzeko arduradun batek azaldu beharko du.

1 Larunbata
Kontzertuak: Kurkuma, ZaKILL, Al azetxo eta Ozpinduk
Ordua: *22:30*
Lekua: *Getariako gaztetxea*
Antolatzailea: *Getaiko Gazte Asanblada*

4 Asteartea
Santa Ageda bezpera
Ordua: *14:30*
Antolatzailea: *Iturzaeta Herri Eskola*
Santa Agedako ohiko koplak kantatuko dituzte herri eskolako ikasleek. Eskolako atarian elkartu eta Sahatsaga, Potzuaga, Balenciaga eta Herrerieta kaleak, Katrapona eta frontoira pasako dituzte. Eguraldi txarra bada, eskolako atarian izango da ekitaldia.

6 Osteguna
Pandero ikastaroaren hasiera
Ordua: *19:00-20:00*
Lekua: *musika eskola.*
Antolatzailea: *Juan Sebastian Elkano Musika Eskola*
Saioak ostegunetan izango dira, 19:00etatik 20:00etara, maiatzaren 28ra arte.

Hitzaldia: *Haur eta gazteen transexualitatea: ez da nire gorputza, zure begirada da*
Ordua: *19:00*
Lekua: *Cristobal Balenciaga Museoko auditoriuma*
Antolatzailea: *Getariako Udala NAIZEN Adingabe Transexualen Familien Elkarteko Bea Serverrek emango du hitzaldia.*

Kontzertuak: *Norkzer?!, Bait eta Onlifly*
Ordua: *20:30*
Lekua: *Getariako gaztetxea*
Antolatzailea: *Getaiko Gazte Asanblada*

8 Larunbata
Santa Eskea auzoz auzo
Ordua: *08:00*
Lekua: *plazatik abiatuta*
Antolatzailea: *Alamedatik Habanerara Bertso Eskola*

Gipuzkoako Kutxa Ligako Taldekako Xake Txapelketa
Ordua: *16:00*
Lekua: *Ulpiano Etxea*
Antolatzailea: *Elkano-Getaria Kirol Kluba*
Getaria bigarren mailako xake taldeak hartuko du parte.

10 Astelehena
Inauterietako kartel lehiaketaren epe amaiera
Ordua: *19:00*
Lekua: *udaletxea edo liburutegia*

13 Osteguna
Después del primer encuentro hitzaldia
Ordua: *19:00*
Antolatzailea: *Elkano Fundazioa eta Getariako Udala*
Nelson Aguilera antropologo txiletarrak eskainiko du hitzaldia.

15 Larunbata
Inauterietako apaingarrien tailerra
Ordua: *12:00*
Lekua: *plaza*
Antolatzailea: *Urritza Aisialdi Taldea*

17-25 Ol.-Lr.
Inauterietako kartel lehiaketako lanen erakusketa
Lekua: *udaletxeko sarrera*

21 Ostirala
Herri Eskolaren inauteri festa
Ordua: *14:30*
Lekua: *Iturzaeta Herri Eskola eta kiroldegia*
Mozorro desfilea, jolasak, festa eta txokolatada.

Odol-ematea
Ordua: *19:00-21:00*
Lekua: *Ulpiano Etxea*
Antolatzailea: *Gure Txeru Elkartea*

Kontzertuak: *Iker Martinez eta Zaldi Herrenak, eta Depekuliars*
Ordua: *22:30*
Lekua: *Getariako gaztetxea*
Antolatzailea: *Getaiko Gazte Asanblada*

22 Larunbata
Inauteri festa

Gipuzkoako Kutxa Ligako Taldekako Xake Txapelketa
Ordua: *16:00*
Lekua: *Ulpiano Etxea*
Antolatzailea: *Elkano-Getaria Kirol Kluba*
Elkano-Getaria Kirol Klubeko bigarren mailako taldeak parte hartuko du.

Kontzertuak: *Rata Negra, Marmol eta Managaitz*
Ordua: *22:30*
Lekua: *Getariako gaztetxea*
Antolatzailea: *Getaiko Gazte Asanblada*

27 Osteguna
Katukale irakurle taldearen saioa
Ordua: *18:00*
Lekua: *liburutegia*
Karmele Jaioren "Aitaren etxea" liburua izango dute hizpide, idazlearekin berarekin.

28-1 Ol.-Ig.
Kataluniara irtenaldia: Ruta del cava eta calçotada
Antolatzailea: *Getariako Jubilatu eta Ezinduen Elkartea*

Cristobal Balenciaga Museoa

Museoa itxita egongo da urtarrilaren 22tik otsailaren 28ra, erakusketa aldatu behar dutelako.

Moda eta ondarea. Cristobal erakusketa
Otsailaren 29tik ekainaren 22ra. Erakusketan jarritako jantziekin batera, Cristobal Balenciagaren objektu pertsonalak erakutsiko dira, Museoko bildumatik hartuta, moda-sortzailearen alderdirik lagunartekoena ekartzeko.

PUBLIZITATE TARIFAK

Tamainak	**Zenbatekoa**
4,3 x 4	*12 euro*
9 x 4	*24 euro*
13,6 x 4	*36 euro*
9 x 8	*48 euro*
13,6 x 8	*72 euro*
orri erdia	*96 euro*

Urte osoan jartzen dutenei %10eko deskontua egingo zaie.

www.artzape.eus

egin bazkide

Txeruko postontzian // info@artzape.eus

Izen-abizenak:	
Helbidea-Herria:	
Telefonoa:	
Helbide elektronikoa:	
Kontu zenbakia:	
Banketxea:	

Urtean 25€ - Getariatik kanpo bidaltzea 30€

SIZ
Servicios Informáticos Zarautz

Ekipo informatikoen salmenta

Mantenua

Informatika akademia

Webguneen diseinua

Urdaneta 2, behea · 20800 Zarautz
Tel. 943 894 014 · fax 943 133 410
www.zarautz.com · siz@zarautz.com